

Laguardiako urmaelak



Ingurumen-garrantzia

Laguardiako urmaela sailaren biotopo babestuak lau hezegune ditu: Carravalseca, Carralogroño, Musco eta Prao del a Paúl. Inguruan, Kantabria-Toloño mendilerroaren magaleko labore-sailak eta mahastiak dira nagusi. Lehen hirurak naturalak dira, eta Prao, laugarrena, antzina urmael baten gainean eraikitako idoia da.

Europako urmaeletan gazitasun larria dutenen artean iparrekoenak dira, eta, inondik ere, laurak osatzen dute Euskal Herriko urmaela-eremurik bereziena eta aberatsena. Urmaela endorreikoak dira: neguan eta udaberrian ur maila handikoak, eta udan ur gutxikoak, osorik lehortzen baitira (Prao, izan ezik).

Ezaugarri horrek eta gazitasun handiak bihurtzen dute eremua toki berezia landare eta animalia batzuentzat, bereziki, hegaztiak, hala nola murgila (*Podiceps cristatus*), antzara (*Anser anser*), basahatea (*Anas platyrhynchos*), kopetazuri arrunta (*Fulica atra*) eta ahate gorritza (*Netta rufina*), besteak beste.



URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 9,6 km



2 ordu eta 30 min



Hurbileko herria:
Laguardia



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



572 m



90 m




551 m



90 m



**LAGUARDIAKO
URMAELAK**



Laguardiako urmaelak



Non dagoen eta nola heldu

Laguardiako urmaelak Arabako Lurralde Historikoaren hego-ekialdeko muturrean dago, Arabako Errioxa eskualdean, Laguardia udalerrian. Ibilbidea hasteko, herrira heltzeko hainbat toki errepide har daitezke. Ibilgailua erabiliz gero, herriko aparkalekuak erabiltzea aholkatzen dizugu, nahiz eta badagoen autoz heltzea "El Prado de la Paul" idoiaren ondoan dagoen zelairaino, bertatik ibilaldia oinez edo bizikletaz hasteko. Zortzi formako ibilbidea da: la Paul ipar begiztan eta Carralagroño, Musco eta Carravalseca hegoaldeko begiztan. Bi begizten artean, Atalayaren oina eta A-121 errepidearen bidegurutzea lotzen dituen tarte komun bat dago. Ikusi ortoargazkian proposatutako ibilbidea. Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia, baina udaberrian (martxoan) eta udazkenean, hegazti gehiago ikusteko parada izango dugu, bereziki, anatidoak. Ikusgarriak dira Prado de la Paul-en lo egiten duten araba-zozo andanen hegaldi akrobatikoak.

Deskargatu
ibilbidea:



KML




GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc

Laguardiako urmaelak



Laguardiako urmaelak



Laguardiako urmaelak

